

Jazarpen luze baten kronika

Rei kazetaria 1994an atxilotu zuten ETari laguntza eman izana egotzita, baina gero absolbitu egin zuten

Erredakzioa / Donostia


Pepe Reik aspaldian ikasi zuen ikerkuntza kazetari-tzan aritzea eta ustelkeria kasuak salatzea garesti ordaintzen dela. Hala, haren aurkako zenbait kanpainaren ostean, Bueren epaileak Reiren espetxeratzea agindu zuen. Gerora, ordea, epaiketan ETari laguntza eman ziola ez zen inondik inora frogatu, eta absolbitu egin zuten.

PEPE REI kazetari galiziarrek hogeitaz hamar urte baino gehiago daramatza Euskal Herrian lanean, eta batez ere *Egin*-eko ikerketa taldeko buru gisa hasi zenetik haren aurkako hainbat kanpaina jasan ditu. Haren aurkako kartelak, mehatxu zuzenak eta ondoren auzipetzea etorri ziren.

1993ko abenduan Ertzaintza *Egin*-en egoitzan sartu zen ikerketa taldearen bulegoak miaztera, eta zortzi hilabete geroago Bueren epaileak espetxeratu egin zuen Rei, ETA erakundeko kide bati Reiren artxiboan zeuden agiri batzuk atzeman zizkiotela argudiatuz. Hiru urte igarota eginiko epaiketan, ordea, ez zen inondik ere frogatu Reik agiri horiek ETari helarazi zizkionik. Hala, Entzutegi Nazionalak Rei absolbitu egin zuen.

Iazko uztaietan *Egin* itxi zutenean, hainbat komunikabideetan berriro ere kalera-tu ziren ikerketa taldeari buruzko informazioak, eta bereziki Reiren izena aipatu zuten. Reik bazekien garai hartako atxiloteta andana artean berea gertatzea ere ez litzatekeela harritzekoa, baina kezka handiago azaldu zuen bere iturrien egoeragatik, haien segurtasuna arriskuan zegoela uste baitu Reik. Halaber, «profesionalki eta politikoki jazartuta» sentitzen zirela azaldu zuen.

Pasa den astean ere, Espainiako komunikabideek Pepe Reik Joaquín Navarro epailearekin eta Jesus Santaella abokatuarekin izaniko ustezko elkarriketa bat dela medio, Garzonek *Egin* sumarioan aparteko atala zabaltzeko zuzendutako zutela jakin zen, baina ingandean gertatutakoaren aurrean giroa ederki berotu zuen.



EFE

Ertzaintzaren sarrera Egin-en. Bueren epailearen aginduz, Ertzaintzak ikerketa taldearen bulegoak miatu zituen, Ondoren, 1994ko abuztuan, Rei espetxeratu zuten talde armatuari laguntza ematea egotzita.



EDURNE KOCH

Elkartasun keinuak. Pepe Reiren espetxeratzeak elkartasun keinu ugari eragin zituen. Hala, esaterako, *Egin*-eko langile guztiak autoinkulpatu ziren. Nazioarteko hainbat pertsonak ere bat egin zuten Reirekin.



ANDER GILLENEA

Pepe Rei aske eta absolbitua.

Hiru hilabete espetxean egin ostean, Pepe Rei aske geratu zen. Ondoren, 1997an kasuagatik epaitu zuten Entzutegi Nazionalan, eta bertan absolbitu egin zuten. Epaiketan ez zen inondik ere frogatu, fiskalak leporatzen zion legez, Reik ETari informazioa helarazi ziola.

Garzoni buruzko liburua kaleratzear

■ PEPE REI kazetariak liburugintzan ere hainbat lan egin ditu, eta egun ere Baltasar Garzon epaileari buruzko liburuan ari da lanean; laster batean kaleratu asmo du Txalaparta argitaletxearekin. Liburuan Garzonek epaile lanean duen jarrera, batez ere euskal auziaren aurrean, salatzea da asmoa.

Joan den astean Pepe Reik, Joaquín Navarro epaileak eta Jesus Santaella abokatuak izandako balizko elkarriketa baten kontura sortu zen zurrumbiloaren ondorioz, kazetari galiziarrek gogor kritikatu zuen «muntaiia», baina umorerako beta ere ez

zuen galdu: «Eskerrak ematen dizkiot Garzon epaileari prestatzen ari naizen liburuaz egiten didan propagandagatik. Izan ere, gertaera ongi dator liburuarekin, argi azaltzen baitu Garzonen maila morala». Astebete geroago ikusita, iragarpen kutsua dario esaldi horri.

Kaleratzear den liburu horretaz gain, beste hainbat ere egin ditu Pepe Reik. Azken urteetan kaleratuak aipatzearren: *La cloaca vasca*, *La red Galindo*, *El Jesuita*, *Carabanchel*, *Intxaurren la trama verde*, *Alcala 20-N*, *Collegas*, *Egin equipo de investigacion*.



EDURNE KOCH

Iragarpena. *Egin* itxi zutenean eta baita joan den astean ere, Pepe Reik *Egin*-en miaketan atzemandako materialen erabilera ez bidezkoa egon zitekeela ohartarazi zuen. Reik zituen susmoak egia bihurtu dira.